

# Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa: III. Eranskina

## EMEKIN–Laguntza eta tutoretza

Urtea: **2022** | Ekonomia Sustapena

### Deskribapena

Enpresa sortzeko prozesuan emakumeek sustatutako enpresa–proiektuei laguntza eta tutoretza emateko dirulaguntzak

Dirulaguntzak **GAUZAZKO LAGUNTZATZAT** hartuko dira, eta pertsona onuradunari eskubidea emango zaio enpresak sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko.

### Pertsona onuradunak

Emakumeek sortutako enpresak, aldez aurretik bideragarritasun–plana EMEKINen dinamikaren barruan egin dutenak eta, gainera, laguntza–eskaera aurkezteko unean JEZen alta eman zutenetik 5 hilabete baino gehiago igaro ez direnak.

### Diruz lagunduko diren jarduerak

Laguntza eta tutoretza [entitate homologatuen](#) bidez emango da, eta honako esparru hauek hartu ahal izango ditu:

- Kontabilitateko, liburuak edukitzeko, aholkularitza fiskaleko eta laneko jardueretan laguntzea.
- Enpresa–zuzendaritza eta kudeaketari buruzko aholkularitza.
- Jarduera juridikoak (jabetza intelektuala barne) eta aholkularitza DBLOn.
- Merkaturatzea, marketina eta komunikazioa: estrategiak, logotipoaren eta irudi korporatiboaren diseinua eta oinarrizko papergintza; diseinua, errotuluak eta katalogoak; publizitate–kanpainen diseinua (merkaturatzea).
- Interneten posizionatzea.
- Merkatu–azterketak.
- Iraunkortasuna eta ingurumena eta ekonomia zirkularra.

Enpresa sortzeko aholkularitza–zerbitzuak ematerakoan, proiektu bakoitzeko gehienez ere 25 orduko ordu–dedidazio hautagarria aurreikusten da laguntzarako eta tutoretzarako.

### Dirulaguntzak emateko prozedura

**Lehiarik gabekoa:** dirulaguntzak aurrekontuko zuzkidurak amaitu arte emango dira, eskaerak jaso diren ordenaren eta eska dakiekeen informazio guztia bete izanaren arabera.

### Dirulaguntzen arteko bateragarritasuna ala bateraezintasuna

Dirulaguntza hauek **ez dira bateragarriak** izango beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, europar edo nazioartekok xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin.

**Bete behar diren epeak:**

**ESKAERAK aurkezteko epea.**

- 2021ean EJZn alta emandako enpresak: 2022ko **uztailaren 21ean, 12:00etan**.
- 2022an EJZn alta emandako enpresak: 2022ko **urriaren 18an, 12:00etan**.

**Proiektuak GAUZATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO epea:**

- ⇒ 2021ean EJZn alta emandako enpresak. 2021eko urtarrilaren 1ean hasi eta 2022ko irailaren 30ean amaituko da gauzatzeko epea.

Proiektuen justifikazioa 2022ko **irailaren 30ean** amaituko da.

- ⇒ 2022. urtean EJZn alta emandako enpresak: 2022ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2023ko apirilaren 28an amaituko da.

Proiektuen justifikazioa **2023ko apirilaren 28an** amaituko da.

**Araudi aplikagarria**

«Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa»ren oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia. Programa hori Diputatuen Kontseiluaren 2022ko ekainaren 21an erabakiz onartu zen (2022ko uztailaren 04koa GAO, 126 zk).

**Kofinantzaketa**

Programak EGFen (Europako Gizarte Funtza) kofinantzaketa komunitarioa (% 50) du "EGF zure etorkizuneari inbertitzen du goiburuz"

**Eskaera egiteko urratsak**

- Informazioa eta dokumentuak → <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzailetasuna/emakumeekintzailea>
- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa → <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

**Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu**

**EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua**

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoa: 943-112287
- Kudeaketa Administrazioa: 943-112218

Emaila: [sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus)